

sanferminak • Iruñea

Emoixtaxu musutxue!

Asteburua igaro
ondoren, etxekoentzat
aurrera segitzen dute
sanferminek, giro
onean, Iruñean

Muxutxu bat ematea nahi duzula? Bai horixe!. Sanferminetako elementu funtsezkoa dira zezenak, adardunek borondatez hala erabaki ez badute ere. Ez dira, ordea, zezenak elementu bakarra, eta jende askorentzat ezta garrantzitsuena ere. Sanferminek, noski, parrandarako, eta, bide batez, ligatzeko parada eskaintzen dute.

Udako berotasunak harremanak estutzera omen darama jendea bestetan; sanferminetan, ordea, iruindarrek ezin dute aitzakia hori erabili, euri zaparrada bat eta bestearen artean ez baitu bero gehiegirik egin orain arte Nafarroako hiriburuan. Kontrakoak ere, hotzak, alegia, balio du aitzakia gisa.

Oraindik ligatu ez baduzu, egon lasai, sanferminak luzeak dira eta oraindik ez dira bukatu.



JOKE LACALLE

Gazte iruindarrek parrandarako hamaika aukera izaten dituzte sanferminetan.

